



# FERIAREKIN AGUR KULTUR HAMABOSTALDIARI

Herritarrek osatutako azoka izango da etzi goizean, Amezketako plazan eta 40 postu inguru izango dira bertan >6

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2008-11-14

VIURTEA 1.559.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Kalejira egin zuten atzo jaien baitan; gaur ere izango dute zer gozatua. IMANOL GARCIA

## Munduko Kopan ariko dira eskualdeko bost pilotari

**TOLOSALDEA** Kuban ariko dira Urkizu, Arozena eta Mendizabal paletan; Lizaso eta Vinuesa xarean 4

## Taloak nola egiten diren ikasiko dute gaztetxoenek

**BALIARRAIN** Kultur Elejiraren baitan eta herritar ugariren eskutik izango da bihar 17:00etan; etzi, Jubilatuen Egunean, hitzaldi irekia izango da 5

## GAZTEEN EGUNEAN MUSIKA ETA JAI GIROA NAGUSITU DA

**AMASA** Atzo Gazteen Eguna izan zen San Martin jaien baitan; gaur asteburuaren atarikoak izango dituzte, adin guztientzako ekitaldiekin 4

**Bellydance,  
Ekialdeko dantza  
konpainiarik  
handiena,  
bihar Leidorren**

**TOLOSA** Mundua Tolosan zikloaren baitan ariko dira 20:30etik aurrera 3

**Afrika eta  
Asiaren nondik  
norakoak  
erakutsi dizkiete  
gurasoei**

**ARESO** Ikastetxeko ikasleek erakusketa zabaldu dute soinketa gelan 7



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan  
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAREN Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



## Z Zurea da hitza



Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

## Euskeraren astea Fleming ikastetxeko Haur Hezkuntzan

Dr.Fleming-eko ikastetxeko Haur Hezkuntzako ikasleek euskal aseta ospatu dute, non bere maskota kuttuna den Xaxi-ri ongi-etorri harrera egin zaion bere Zugarramurdiko oporraldia pasa ondoren, eta umeen gozameneko hitz aspertu batzian dute berarekin hainbat opari elkartrukatu.

Bestalde, beste ekintzen artean, ikasleek jolas berriak azaldu eta konpartitu dituzte, olerkiak eta ipuinak kontatu, marrazkiak

egin... eta amaiera gisa Amasara txangoa egin dute. Fleming ikastetxea.

## Gabonetako argiak prestatzen hasi dira

Eguberrietako argiak prestatzen ari direla ikusi dut. Oraindik ez dituzte piztu eta espero dut horrela izatea. Hala ere, urtero goiz xamar pizten dituzte, oraindik gabonak ez direnean. Iaz goatzen naiz esan zutela zenbat diru gastatzen zen honekin eta zifra ez dut gogoratzen baina pila bat zen.

Egia bada krisia denontzat dela

ea Udalak ere poltsikoa estutzen duen eta kontzientzia pixkatekin ez dituen hain goiz pizten argiak. Herriarrak eskertuko dugu.

Miriam (Tolosa).

## Especismoa

Villabonako bizilagun bat naiz eta haserre nago Amasako jaien baitan egiten den oilasko jokoa dela eta. Duela urte batzuk animalien defentsan diharduen eragile batek jarritako salaketa dela-eta debekatu egin zuten. Baina denek dakigu egiten jarraitzen dela, egiten duten bakarra da deialdi publikorik ez egitea. Amasan, animalien hilkete-kin exhibizioa egiten jarraitzen dute.

Nik neuk salatu behar al ditut datorren urtean hau errepikatu ez dadin?

Arantxa (Villabona).

## Euskaraz gaizki idatzita

Lehengoan, Ikaztegietak krosa zegoela irakurri nuen HITZAN. Izena eman behar nuen momentuan ikusi nuen web orri bat zegoela horretarako (ez da Ikaztegietak sortutakoa, [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) da). Sartu nintzen eta ez dakit zeinena den ardurak, baina oso gaizki dago idatzita euskaraz. Hamaiketako hatxerik gabe, Ikaztegieta jartzen du,... Hitzez hitz honela agertzen da: «Izen ematea karre-rako egunean 9:00etatik 10:30etara. Saria kilometrako materiala. (Zozketa izango da partehartzalea artea eta amaiketakoa)». Eta hemendik aurrera gaztelaz.

Mesedez, ez gaude euskara menperatzen ez den eremu batean, gutxienez, hori hemen zaindu dezagun.

Herritar bat.

## K Kirol jarduera

## Gaur

## Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantxan, lurraldekoen partida: Laskorain-Bilkoin, 20:30ean.

■ Usabalgo beheko kantxan, Laskorain-Eskolapioak, 20:30ean.

## Bihar

## Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30etik, infantilen mutilak: TAKE A-BKE; neskak, TAKE B-Easo.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan kadeteak: meskak TAKE B-Goierri; mutilak, TAKE Tovar-BKL.

■ Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan, junior maila TAKE-Zarautz.

## Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantxan, 16:30etik, Lurraldekoen 1. Maila: Tolargi-Hondarribi.

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etan, Bigarren Nazional Maila, Laskorain-Ceramicas Nogaes.

## Eskubaloia

■ Usabalgo beheko kantxan, 18:00etan, kadeteak: Tolosa-Pulpo.

## Futbola

■ Berazubiko futbol zelaian, 16:30etan Gorengo Maila: Tolosa CF - Amaika bat.

■ Usabalgo futbol zelaian, infantilen Ohorezko Maila 10:00etan, Tolosa CF - Lagun Onak.

■ Usabalgo futbol zelaian, kadetak Euskadiko Maila, 11:30ean, Tolosa CF - Danok bat.

■ Usabalgo futbol zelaian, Lurraldekoen Bigarren Maila, 15:30etik aurrera, Amaro-Ostadar.

## Etzi

## Saskibaloia

■ Infantilen topaketak, Usabalgo goiko kantxan, 09:30etik 13:30era.

## @ Zurea da hitza.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzaren webgunean duzue, besteak beste, 'Zurea da hitza' atala. Bertan, zuen iradokizunak, kezak, zorian mezuak... idatz ditzakezue. Iraingarriak ez diren heinean ostiralero papereko edizion argitaratuko ditugu bi euskarrien arteko lotura zuzen izan dadin. Halaber, Tolosaldeko eta Leitzaldeko webgunean ere ikusgai izango dira, jendeak erantzuteko aukera izan dezan.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)



## I Irudietan



## Lizartzatik ondoak

**LIZARTZA** ■ Irakurleak aruten bildutako ondoen argazkiak bidaltzen ari dira [Hitza.info](http://Hitza.info) n dagoen sailera. Horren adibide, Imanol Ganzarain lizartzarak. Argazkiak bidaltzearekin batera hauxe esan du Lizartzako gazteak: «A ze tortilla jan behar duna amak». Jarraitu bidaltzen zuek bidultako ondoak.

## B Blogteka



## Produktu ekologikoen azoka Samaniego ikastetxean

Gaur, 6. mailako ikasleek, eskola-ko baratzean zaindu eta landutako produktu ekologikoak salgai jarriko dituzte ikastetxean. Arratsaldeko 16:30ean zabalduko da azoka berezi hau eta 17:30ak arte Samaniegoko baratzean ekoiztutako hainbat produktu eskuratze-ko aukera paregabea izango da: kalabaza, bruselazak, porruak, azenarioak, zerbak (azelgak), urazak (letsugak), perrexila, belar aromatikoak,...

Egun horretan ere, jangelako menuan, baratzeak jasotako ka-

labaza ekologikoen purea bazkalduko dute.

## Samaniego ikastetxea

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/samaniego>

## Hirukideko kideak Behobia-SS lasterketan

Hirukideko hainbat langilek eta gurasok parte hartu zuten atzo Behobia-Donostia lasterketan. Ageri denez, oso aurpegi atsegina zuten irteeran. Zoritxarrez, ezinezkoa izan da helmugako irudirik jaso. Hala ere, zorianak korrikalariei.

## Hirukide ikastetxea

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

## Ekialdeko dantza konpainia handiena, bihar, Leidorren



Ekialdeko erritmoak nagusituko dira bihar 'Babelesque' ikuskizunean. HITZA

**Tolosa** » Bellydance Superstar-ekoak hemen dira Mundua Tolosan zikloaren baitan; emanaldia 20:30ean da.

### ERREDAKZIOA

Ekialdeko dantza konpainia handiena Tolosan izango da bihar. Mundua Tolosan zikloaren baitan, 20:30ean hasiko da Leidor antzokiko ikuskizuna.

Mundu guztian zehar, oihartzun eta ikusmin handia ari dira sortzen egun, ekialdeko dantzak Gero eta emakume gehiagok izan dute honek sortzen dituen onurak ezagutzeko aukera. Hauek gorputzean nahiz gogoan.

The Bellydance Superstar sabel dantzako konpainia handienak hainbat bira egin ditu mundu osoan zehar, eta orain gurean da. Superstar-en helburuetako bat da sabel dantzaren estatusa igotzea, dantzako genero ezberdinen arte-

an. Hala, kabaret, egipziar eta tri-buen estilo ezberdinak uztartzen dituzte. Honekin erakusten dute, estilo hau misteriosua, exotikoa eta oso sentsuala izan daitekeela.

### 'Babelesque' emanaldia

Nazioarteko dantza talde honen emanaldiak *Babelesque* izena du. Emanaldi izugarri honekin beste behin ere publikoa txundituta uztealortu dute. Koreografia berriak, luxuzko arropa koloretsuak, lehendabiziko mailako muntaia dute. *Babelesque* sabeleko dantzaren alde ezberdinak eta anitzak biltzen ditu. Batzuetan, une dibertigarriak bizitzeko bakarrik, eta beste batzuetan, espiritualak.

Jillina da taldearen buru, eta bera da erakusten dituzten koreografiaren egile nagusia. Bellydance Superstarseko dantzariak ikuskizun indartsua eskaintzen dute, eta publikoa urrutiko leku eta garaietara eramatea lortzen dute honekin. Doinu exotiko eta ederrak entzuten diren bitartean, dantzariak ikuskizun landua taularatzen dute, argi muntaia bereziarekin lagunduta.

## 'Ilunpean' komedia ikusteko aukera izango da gaur, Gurean

**Villabona** » Peter Shaffer-en testu batean oinarrituta dago antzezlan; argiarekin eta ilunpearekin jokatzeko dute obra honetan.

### ERREDAKZIOA

Kanpingangs konpainiak *Ilunpean* obra aurkeztuko du gaur gauetan. Peter Shaffer autore britainiarren testuan oinarrituriko komedia da hau. Emanaldia Gurea antzokian izango da eta 22:30ean hasiko da. Lanean ondorengo aktoreek hartzen dute parte: Asier Hormaza, Itziar Ituño, Klara Badiola, Isidoro Fernandez, Ainhoa Garai, Ramon Ibarra, Asier Sota, Alfonso Diez eta Fede Badiolak. Lander Iglesias zuzendutako lan honekin iluntasunaren eta argiaren arteko joko bat proposatzen du.

Brindsley eta Carol dira bikote protagonista, ezkontzera doaznak. Arte-bildumagile baten bisita izango dutenez, beren bizilagunaren altzariak hartu dituzte etxea itxuratsuta gera dadin. Argia joaten denean hasten da nahasketa. Bizilaguna agertzen da, eta bikotea saiatzeko da iluntasunaz baliatzen altzariak itzultzeko. Baina egoera guztiz nahasteko, Brindsleyren



'Ilunpean' antzezlan Kanpingangs konpainiak ekoizten du. HITZA

neska ohia agertzen da, berak benetan maite izan duen neska. Komedia prest dago, horrenbestez, hamaika eszena barregarri ikusi ahal izateko.

Ikuskizunaren arrakastaren gakoak, zuzendariaren esanetan, publikoaren laguntzan dago. «Ikusle eta antzezlearen arteko lotura erabatekoa izan behar da, bestela gaizki joan dela somatzen da», dio. Santurtziko Serantes kultur aretoan

egin zuten estreinaldia. Bertan, «Barre algarak entzun ahal izan ziren», eta, bere zuzendariaren iritziz, horretan datza gehienbat antzezlan, oso eszena barregarriak baititu. Pertsonaiak estereotipo hutsak dira eta horrek ekartzen dituen egoerak publikoak barre egitea eragiten du. Zuzendariaren testuaren kalitateaz ziur dago, eta etorkizun arrakastatsua baten zailtzarrik ez du.

## Trikujai disko festa izango da gazteentzat bihar Beotibarren

**Tolosa** » 22:00etan hasi eta goizaldera arte luzatuko da jaia; dantzarako erritmoak izango dira pilotalekuan.

### ERREDAKZIOA

Duela hilabeta batzuk hasi zen Tolosako Udala Trikujai Disko Festa antolatzen, eta hilabete honetan ere dantzarako hitzordua jarri du jada. Aurrekoetan bezala, Beotibar pilotalekua izango da dantzatokia. 22:00etan hasiko da festa eta goizaldera arte luzatuko da, 05:00ak arte, gutxi gorabehera.

Musika N-Sound eta Nemux Gang-ek jarriko dute, eta horretaz gain, dantzariak eta pantaila erraldoiak ere izango dira.

Tolosarra ez izatea traba izan ez dadin, aurreko Diskofestetan egin duten bezala, orain ere, Udalak autobus zerbitzua jarriko du inguruko herrietan bizi diren gazteentzat. Festa erraldoi honetara joatera animatzen diren sarrerak 3 eurotan dituzte eskuragarri.

Festa hau antolatzearekin gazteak Tolosan geratzea eta herria girotzea da Udalaren helburuetako bat. Aurrera begira ere, ekimenarekin jarraitzea aurreikusten dute antolatzaileek.

## Futbolariak Euskal Herriko selekzioaren alde

**Futbola** » Euskal futbolariak luzatutako agiriarekin bat egin dute Gari Urangak eta Igor Jauregik ere.


### ERREDAKZIOA

Abenduaren 26rako deituta dagoen Euskal selekzioaren eta Iranen arteko partida dela eta idatzi bat luzatu dute «Euskadi hitza erabili izana gaitzetsiz, eta ez Euskal Herria». Agiri honekin bat egin dute, 165 euskal futbolari, tartean eskualdeko batzuk, Gari Urangak eta Igor Jauregik hain zuten. Euskadiko Futbol Federazioak partida iragartzean Euskadi hitza erabili du, Euskal Herriaren ordez. Hau aldatzen ez badute, ez dutela partidari jokatu ohararazi dute agiriaren sinatzaileek.

Futbolariak luzatutako agiriaren diotenez, Euskadiko Futbol Federazioak ez ditu aintzat hartzen Nafarroa Garaia, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan dauden futbol taldeak.

Euskadiko Futbol Federazioak kideek futbolariaren ordezkaritza batekin bilkura egin zuen irailean. Idatzian azaldutakoaren arabera, Gabonetako partidari begira gauzak nola zeuden azaldu asmoz bi aukera posible luzatu zizkieten: bata, aurrean, ia zoko aurrera pausoa iri muzin egin eta Euskadi izenarekin jokatzeko, eta bestea, hori onartu ezean, aurrean partidariak ez jokatzeko.

Honenbestez, Federazioak harutako erabakia atzera pauso bat dela uste dute. Gaineratu dute ere, «gaur egun, euskal kirolariak batuko gaituzten federazio nazionalik ez egoteaz gain, egungo Euskal Autonomi Erkidegoko federazioetatik ez dago borondate eta asmorik norabide horretan pausok emateko». Honen aurrean, Euskal Herriko kirolariak ez daude atzera egiteko prest eta zazpi herrialde osatzen duten nazioa ordezkatu nahi dute, «horrek, gaur eta orain, Euskal Herria izena du». Bestalde, «iaz errealitate egin zen ametsa, ez dugu berriro amets bihurtzen utziko» aldarrikatzen dute.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Gazteek izan dute bere eguna

**AMASA** ● Gazteen Eguna izan zen atzokoa San Martin jaietan. Urtero bezala, goizean zehar baserrietatik joan ziren musika eta dantza lagun zutela. Gero bazkaria egin zuten Uxo-Toki elkartearen eta arratsaldean soka dantza eta aurriskuaren txanda izan zen. Musika eta dantzarekin jarraitu zuten erromeria eginez eta

afaria Iturri Goxo jatetxean egin zuten. Gaurkoan, urteroko bi ekitaldi izango dira. 17:30ean Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia, ondorengo txokolate berroa eta guzti. 20:00etan Amasako XVII. Bakailao Lehiaketa egingo dute frontoian. Eguna amaitzeko, 23:30etik aurrera dantzaldia Laitoz taldearekin. is.

## Eskualdeko bost pilotari Munduko Kopan izango dira

**Pilota** » Urkizu, Arozena eta Mendizabal paletan ariko dira eta Lizaso eta Vinuesa xarean, etzi hasi eta hilaren 23ra arte.



Larramendi, Urkizu, Arozena eta Mendizabal. HITZA

### ERREDAKZIOA

Trinketeko frontoian Munduko Kopa jokoan izango da Kuban etzi hasi eta hilaren 23ra arte. Bertan eskualdeko bost pilotarik parte hartuko dute. Hiru pilotari eratu berri den Anoetako Su-Berri pilota elkartekoak dira: Itsaso Urkizu berastegierra, Nagore Arozena lizartarra eta Maider Mendizabal anoetarra. Beste biak Irurako Ametsa elkartekoak izango dira: Andoni Lizaso eta David Vinuesa irurarrak. Espainiako selekzioa ordezkatzeko izango dira.

Dagoeneko Kubara bidean izango dira pilotariak. Su-Berri elkartekoekin taldea osatuz Maite Ruiz de Larramendi eulaterra joango da. Trinketean jokatzeko den gomazko paleta argentinar jokamoldean ariko dira Frantzia (Iparraldeko pilotariekin osatutako selekzioa), Mexiko eta Kubaren aurka.

Munduko Kopa horretan, 2006an Mexikon egindako Munduko Txapelketako lehenengo hiru sailkatuak eta herri antolatuak parte hartuko dute, kasu honetan Kuban. Denak denen aur-

kako ligaxka egingo da eta lehen bi sailkatuak zuzenean finala jokatu dute. Beraz txapelketa motza da baina exijentzia handikoa, izan ere akats batek finaletik kanpora utzi baitezake talderen bat.

Paletari dagokionez, hasiera batean mexikarrak eta kubatarrak joko maila bajuxeagoa daukate baina gisa honetako txapelketa batean denak dira kontuan hartu beharreko aurkariak. Hala ere, Su-Berriko pilotariak beraien joko mailarik onena garatzen saiatuko dira eta oker handirik ezeean finaleira pasatzea dute helburu. Behin pauso honen ondoren, finalean Frantziako selekzioari gogotsu au-

rre egiten saiatuko dira eta berriz ere munduko txapelidun titulua eskuratzeko izango dute helburu.

Bestalde, Lizaso eta Vinuesa xare modalitatean ariko dira. Hauekin batera taldea osatuz bi nafar doaz: Jose Javier Larrea eta Ignacio Dufur. Xarelari hauek ez dute batera xamurra izango finaleira iristen izan ere Frantziako selekzioak, hau ere Iparraldeko jokalariez osatua, oso joko maila ona du eta kubatarrak ere pixkanaka hobeto moldatzen ari dira modalitate honetan. Argentinarrek, berriz, pixka bat atzerago daude hasiera batean baina hori txapelketan zehar ikusi beharko da.



Oihane eta Juan Kruz Igerabide Kultur Astearen izango dira. ESTI ZEIZA

## Ekitaldi ugari eta anitzak aurtengo Kultur Astearen

**Aduna** » Kultur Astearen egin diren berrikuntzak inauguratuz hasiko dira etzi arratsaldean Kultur Asteko ekitaldiak.

### IMANOL GARCIA

Kultur Asteko ekitaldiekin etzi hasiko dira Adunan. Gai ugari izango dituzte: filma ikustea Kultur Astearen berrikuntzak inauguratzen direla, kirolari buruzko mahain-gurua, ipuin kontaketa musikaz lagunduta, Segundo Montes komunitatearekin anaieratzea, Euskal Curriculuar buruzko hitzaldia, musika kontzertua, mus txapelketa, kantujira, pailazoak, txerri boda eta herri bazkaria. Ekitaldi anitzak, beraz.

Lehenengo ekitaldiak Kultur Astearen egin diren berrikuntzak inauguratzeko baliko du. *Eutsi!* filma ikusi ahaliko dute bertara joa-

ten direnek. Astearen argiztapen berria jarri dute, proiektore berria diapositibak, filmak eta bideoak emateko eta bozgorailu handiagoak.

Ekitaldi interesgarria ere izango da Aduna eta El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen arteko anaieratzeari buruz egingo dena. Aduna, Astearekin eta Zizurkilgo alkate ohia izango da eta Euskal Fondona erakundeko Juanma Balerdi ere izango da. Euskal Fonoak Segundo Montes komunitatearen martxan dituen proiektuen berri emango dira.

Kirolari buruzko mahaingurua ere interesa piztuko du. Olinpiar Jokoetan izan ziren ezinduko fisikoak diren bi kirolari, Hilario Olan eta Mikel Garmendia, eta Iñaki Arratibel kirol medikua izango dira parte hartzen.

### » EGITARAUA

#### Azaroak 16, etzi

Kultur aretoaren inaugurazioa  
**■ 17:00.** Filma Kultur Astearen.  
**■ 19:00.** Merienda. Ondoren, musika emanaldia (Leire Leturia...).

#### Azaroak 17, astelehena

**■ 20:00.** Mahaingurua Kultur Astearen. Gaia: *Kirola Obsesioak eta erronkak*. Parte-hartzaileak: Iñaki Arratibel medikua eta Hilario Olan (txirindularia) eta Mikel Garmendia (saskibaloijokalaria) kirolari eta ezinduko fisikoak. Moderatzailea: Aitor Elduaian.

#### Azaroak 18, asteartea

**■ 20:00.** *Grezia zaharreko istorioak* ipuin irakurketa Kultur Astearen, musikaren laguntzarekin. Juan Kruz eta Oihane Igerabideren eskutik. Helduentzako emanaldia izango da.

#### Azaroak 19, asteazkena

**■ 20:00.** Aduna eta El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen anaieratzea.

#### Azaroak 20, osteguna

**■ 20:00.** Hitzaldia Euskal Curricu-

lumiari buruz. Euskal Herriak Bere Eskola-ko (HEBE) kide batek emango du Kultur Astearen.

#### Azaroak 21, ostirala

**■ 18:30.** Musika kontzertua elizan. Loatzoko musika eskolakoek Santa Xexili eguneko emanaldia egingo dute.  
**■ 21:30.** Txulobi Elkartearen mus txapelketa.

#### Azaroak 22, larunbata

**■ 12:00.** Herriko koroak beste herri batzuetako partaide batzuekin kalejira kantatzeko egingo dute.  
**■ 17:00.** Kiki eta Koko pailazoaren *Ninatura* naiz emanaldia. Ondoren, barrikotea, taloak, gaztainak...

#### Azaroak 23, igandea

Goizean zehar, txerriari harrera, eta ondoren txerri-boda. Odolkiak eta txorizoak nola egiten diren erakusketa, pintxoak, barrikotea... As-tiasaran anaiek eta Juan Mari Beltranek alaiturik.

**■ 14:00.** Herri bazkaria egingo dute. Tiketak hartzeko, azaroaren 17a baino lehenago Uztartza aterpetxean.



# Taloak prestatzen ikasiko dute txiki eta gaztetxoek, herritar ugariren eskutik

**Baliarrain** » Etzi Jubilatuen Egunean Gizarte Zerbitzuei buruzko hitzaldi irekia izango da; guztia, Kultur Elejiraren baitangoa da.

## NEREA URBIZU

Bihar, Baliarraingo Kultur Elejirarekin aurrera egingez, herriko haur eta gaztetxoek zuzendutako talo tailerra izango da. Honetan, guraso batzuk eta udaletxeko zinegotziek hartuko dute parte, txikienei taloak nola egiten diren erakusteko asmoz. Eguraldiaren arabera, frontoian edo elkarrean egingo dute tailerra. Txapa egongo da, noski, taloak egiteko eta ondoren izango den meriendarako haragia erretzeko ere. Material eta osagai guztiak Udalak jarriko ditu.

Taloak egiten 17:00etan hasiko dira, beraz, jaten, ordu erdi inguru beranduago, gutxi, gorabehera, hasiko dira.

## Jubilatuen Egunean hitzaldia

Etzi Jubilatuen Eguna dago antolatuta Baliarrainen. 11 jubilatutako dirak Zartagi jatetxean bazkaltzeko. Baina aurretik hainbat ekitaldi izango dira: 11:30ean ha-



Zartagi jatetxean izango dira jubilatuen bazkaria eta hamaiketakoa. A. OTEZABAL

maiketakoa Zartagin, gero mezetara joateko: 12:30ean izango da.

13:15 inguruan herritar guztiengaz izango den hitzaldi bat presatuko dute. Larraitx Agirre Udaleko gizarte langile berriaren eskutik izango da eta bere lanaz eta eman ditzakeen zerbitzuez ariko da.

Antolatzaileek esan bezala, «hitzaldi honen helburua da herritarrei azaltzea zein den gizarte langilearen zeregina, eta zein diren eman ditzakeen laguntzak. Askok dira, eta askotan jendeak ez dauka

argi zertarako dagoen». Hitzaldia baitan, bukatzeko, batez ere jubilatuek dituzten beharrak zein diren jakin nahi da, «honela errealtateari eta herritarren beharrei egokiago erantzuteko».

## Gaur, lehen sorospenei buruz

Gaur lehen sorospenei buruzko hitzaldia izango da Kultur Etxean. Kasu honetan, Josune Lazkano erizainaren eskutik izango da eta 21:00etan hasiko da. Ordu eta erdi-koa izango da, gutxi, gorabehera.

## Laburrak

### Ibarran gaur Aurrera-Saiaz pilota eskolakoen arteko partida

**PILOTA** » Gaur, Aurrera-Saiaz pilota eskolako seniorren arteko partida bat ikusteko aukera izango da Ibarran: 19:15ean hasiko da binakakoa, eta Zazpi-Ilturriren kontra lehiatuko dira. Beste bi norgehiagoka bihar izango dira 10:15ean hasita eta seniorren arteko izango da. Añorgakoak eta Ozkarbi eskolakoak dira bikote aurkariak. Partida guztiak ere, Probintzialeko ligakoak dira.

### Gaztetxoentzako asteburua, Kaxkagorrek

**AISIA** » Asteburu honetan bailarako gazteak honako ekintza hauek egiteko aukera izango dute Kaxkagor elkarrean eskutik: gaur, eskalada hastapena Asteasuako rokdromoan, 18:30etik aurrera. Bihar, berriz, Mihiluze Txapelketa egingo dute Larraulgo Kultur Etxean. Hauek 16:30ean hasiko dira. Ekintzetan parte hartzea doakoa da eta izena eman nahi dutenek [kaxkagor@hotmail.com](mailto:kaxkagor@hotmail.com) helbidera mezu bat bidali besterik ez dute egin behar.

### Gaztetxean bihar, laguntza emateko bi kontzertu

**ANOETA** » Badira aste batzuk Bilboko gazteek, Gaztetxe bat okupatzeko asmoarekin, jaso zutela. Honela, 40.000 euro inguruko isuna jaso zuten, eta «ezinbestekoak dute Euskal Herriko gaztetxeen laguntza honelako erasoei aurre egiteko». Hori dela-eta hainbat ekimen burutu dira laguntza hori emateko. Besteak beste, Anoetako Gaztetxeak bihar 23:00etan, antolatutako kontzertuak. Bertan Ipar Hazea eta Mendeku Itxua izango dira jotzen. Honen bitartez Gaztetxeak laguntza emateaz gain «gazteek pairatzen dituzten eskubide urraketak» salatzen dituzte.

### Bihar, eraso sexisten aurkako elkarretarata

**ALEGIA** » Bihar 12:00etan plazan, Alegiako Udalak elkarretarata egingo du. Honetan honako leloa erabiliko dute: *Denon ardura da: eraso sexistarik ez!* eta eraso sexistak salatuko dituzte.

## San Gregorio Egunean gain, beste egunetan ekitaldi gehiago izango dira

### ERREDAKZIOA

Albizturren San Gregorio Eguna ospatzen ohi dute (astelehena, azaroak 17). Aurtun, egunari lotuta, hainbat ekitaldi egingo dituzte beste egun batzuetan ere. Hauek herritar guztiei zabaldua daude, eta noski, «denak gonbidatuta daude parte hartzera». Egunean bertan bertso afaria izango da 21:15ean Ugarte jatetxean eta bertsoan Amaia Agirre eta Beñat Iguaran ariko dira. Izen-ematea jatetxean bertan egin daiteke.

Urtero ospatzen da jai hau. Baina orain arte, meza, afaria eta toka txapelketa bakarrak egin izan dira. Aurtun, talo ikastaroa eta diaporamabat ere eskainiko dituzte

### » EGITARAUA

#### Azaroak 17, astelehena

■ **20:30.** Meza ospatuko da San Gregorio ermitan.

■ **21:15.** Bertso afaria Ugarte jatetxean. Bertsoan, Hamaika Bertuteko kide diren Amaia Agirre eta Beñat Iguaran. Izen-ematea jatetxean bertan.

#### Azaroak 22, larunbata

■ **16:00.** Talo ikastaroa eta jatea Kultur Etxean.

■ **Ondoren.** Taloak dastatzeko aukera hirugiharre, txorizo, txokolata eta gaztarekin.

■ **21:30.** 36an 13 urte edukitzea diaporama ikuskizuna (Kepa Gonzalez). Joakin Galvez da protagonista eta hondarribiarraren historia kontatzen da. 13 urte zituen Espainiako gerra zibila hasi zenean, Irun utzi egin behar izan zuen eta erbestera bide luzea egin. Han, gorabehera eta zoritxar ugari ezagutu zituen, betiere amaren ondoan. 1944ean Euskal Herria itzuli zen.

#### Azaroak 23, igandea

■ **11:15.** Meza Nagusia ospatuko da San Gregorio ermitan.

■ **12:30.** Toka Txapelketa Ugarte jatetxearen atarian. Urtero bezala, sari bereziak izango dira.

# Bihar, O+Hatz Amezketan

## N. URBIZU

Amezketan Kultur Hamabostaldia-aren azken txanpan sartuko da aste-buru honetan. Gaur Musika eskolaren aldeko festa, eta bihar euskal musika tresnei buruzko saio didaktikoa, zahagi ardoa eta kantu poteoa izango dira. Bukatzeko, etzi Azoka berezia izango da.

Udaletxeko ganbaran izango den euskal musika tresnen gaineko saioa didaktikoa da, 18:30ean hasita. O+Hatz proiektuaren eskutik izango da, adin guztietarako

aproposa: «Proiektu honen baitan», azaldu du Garmendia ibartarrak eta O+Hatzeko kideak, «kontzertu didaktikoa, kontzertu arruntak edota ikastaroak daude, eta bihar egingo duguna kontzertu didaktiko bat da».

Txistua eta danbolina, alboka, xirula, txalaparta, trikitixa, tabla indiarra eta Trinidad uharteetako steel drum tresnak entzun ahal izango dira Ion Garmendiaren eta Iñaki Plazaren eskutik.

Kontzertuak ordu bete iraungo

du eta lehen ordu erdian azalpenak eta kantuak konbinatuko dituzte. Bigarren zatian, Euskal Herriko kanpoko tresnak eta euskal tresnak batera joko dituzte. Garmendiak adierazi du ere, urtarilerako diskoak prestatzen ari direla.

## Iluntzean zahagi ardoa

Ondoren, 20:30ean hasita frontoian zahagi ardoa izango da eta bakoitzak bere janaria eraman beharko du. Gero kantu poteoa izango da, herrian zehar.

txokoa **h**



**BRUESA GBC**  
DKV Joventut

**IGANDEA**

AZAROAK **16-12:30**

ILLUNBE

**Sarrera pareta**  
zozketatu dugu!

**irabazlea:**  
Errekalde Taberna (Irura)



Hurten ere animaliak (zaldia, behorak, oiloak...) izango dira, iaz bezala. Irudian, joan den urteko Amezketako ferian, aita-semeak zaldia ikusten. ANDER OTEZABAL

Herritarrek osatutako azoka izango da etzi goizean, Amezketako plazan eta Kultur Hamabostaldiaren baitan. Guztira, 40 postu ezberdin izango dira, tartean bitxikeriak izanik.

## Feria berezietan berezienak

### NEREA URBIZU

**L**urrak ematen dizkigun baliabideak eta gure inguruan bizi eta hezten ditugun animaliak asko dira Euskal Herrian. Hauekin azokak egitea usuzkoa da gure herrietan eta aspaldiko ohitura eta beharra ere bada. Etxegehienetan, beste etxe batean falta dena dute eta honela feriak hiri handienetan sortuko ziren garai batean, Erdi Aroan seguruenik. Bada, feriarren oinarritzko funtzioa alde batera utzita, herri askotan azoka bereziak egiten hasi dira, herriko biztanleek baserri eta etxeetan dutena erakusteko asmotan, eta zergatik ez, saldu gero, hobeto.

Joan den urtean egin zuten lehen aldiz peria Amezketan, eta orduko arrakasta ikusita aurreneko berri egitea erabaki dute, etzi, hain zuzen. 10:00etan hasiko den azoka honetan, denetik ikusi eta erosi ahal izango da. Izan ere, guztira 40 postu inguru izango direla argitu du Amezketako Udaleko kultur eta ongizate zinegotzia den Xatur Zabala.

Salgai izango direnak hauek dira: baserriarrek ekarritako garraiko (udazkenekoak) barazkiak, Ogiberrik prestatutako ogi, tarta eta gozoak, irasagarra, mondejuak, gazta, mamia, gaztazaharra, txakurkumeren bat, taloak, sagardoa (sagardo-egilea), oruxoa (oruxo-egilea) eta ezitia. Hala ere, seguruenik, egunean bertan postu gehiago topatzea erraza izango da. Guztiak ere, herrian bertan eta herritarrek

egindakoak dira. «Herriartekoa izango da feria, hau da, postuak herritarrek jarritakoak dira».

Ikusteko gauza asko izango da ere: ahuntzak, txakurrak, oiloak, untxiak, zaldi eta behorak, astoak, eskulanak (puntoa, bainika, gan-txiloa, zeramika...), argazkiak, perratzailea, sega pikatzen, txintxa-

### Gaur musika eskolaren aldeko jaiak eta larunbatean, tartean, triki-poteoa izango da

rrigilea, egur taila... Honigaineratu behar zaio errota: taloak egiteko artirina bertan egingo dute, eta horrekin mementoan bertan egingo dituzten taloak erosi ahal izango dira gero.

Egun honetarako jendea era berezian jantziko da, hau da, iaz bezala baserriarrek jantzita, bai gizonak, emakumeak eta baita haurrak ere. Honela, feriak eguna bitxiago ateratzen da.

### Mendiko materiala

Aipatutako produktuez gain aurretik Buruntzunin elkartearen kide-ekpostu bat izango dute eta bertan, mendiko materiala izango dute (hainbat dendak emandako arropa eta abar). Horretaz gain, herritarrek ere eraman dezakete mendiko materiala, Buruntzunin zineko postuan saltzeko: bigarren eskuko gauzak izango lirarteke, noski. Aurretik jasotzea eskertuko lukete el-



Saltzaileak baserriarrek jantzita egongo dira, argazkian bezala. A. OTEZABAL

kartekoek, 667 947 508 telefono zenbakira deituta. «Bestela ere, egunean bertan ekarritako jarrikogenuke salgai».

### Amezketan lehen, feriarik ez

Joan den urtean egin zuten lehen aldiz azoka berezia Amezketan eta orduan ere arrakasta izan zuen.

Xatur Zabala zinegotziak ez du herriarri azokarik ezagutu: «Gure amonak Tolosara joaten ziren (orain 100 urtetik gora izango zizuten emakume horiek) gaztaren eta saldu beharrekoarekin, mendiz gainera. Beranduago autobusez ere joaten zirela badakit. Ez dut uste Amezketan feria egin-

### » AZOKAKO DATUAK

- **Ordua.** 10:00etatik 14:30a ingurura arte.
- **Lekua.** Amezketako plazan.
- **Saltzekoak.** Gazta, mamia, gaztazaharra, gaztamanteka, barazkiak, tarta eta gozoak, irasagarra, mondejuak, taloak, ezitia, mendiko materiala.
- **Ikustekoak.** Animaliak (behorak, txakurrak, oiloak, untxiak, ahuntzak...) eskulanak, perratzailea, txintxarrigilea, sega pikatzailea, errota irina egiten...

go zenik, Tolosakoak indar handia zeukan». Tolosaldeko herri gehienetatik Tolosara joaten zen, produktuak saltzera eta eroszera.

### Asteburuan berotzen joateko

Ez da, baina, feria izango duten gauza bakarra Amezketan. Gaur bertan musika eskolaren aldeko festa izango dute, ikasleen emanaldi eta guzti. Ondoren, afari-merienda egingo dute eta otartekoak eta gaztainak izango dituzte salgai. Hemen ere, noski, musika ez da faltako.

Bihar, aldiz, O+hatz taldearen eskutik euskal musika tresnen gaineko saio didaktikoa antolatuko dute, 18:30ean udaletxearen ganbararen. Segidan zahagi ardoa frontoian izango da eta Udalak edaria jarriko du, norberak janaria eramanez.

Ondoren, kantu poteoa egingo dute herriko tabernetan zehar. Beraz, indarrak banatzea besterik ez dute egin behar Amezketan, ekitaldi guztiak gozatu nahi bada behintzat, igandea ez baita xamurragoa izango azokaren kontuarekin. Azoka berezi honek Kultur Hamabostaldia iteko ardua hartu du bere gain, datorren urtera arte.



Aresoko eskolan Afrikaren eta Asiaren inguruko erakusketa zabaldu zuten egun batez bertako ikasleek. ASIER IMAZ

## Eskolako ikasleek Afrika eta Asia nolakoak diren erakutsi diete gurasoei

**Areso** » Bi kontinente hauen inguruan aritu dira lanean ikasleak eta atzo erakusketa zabaldu zuten soinketa gelan.

ASIER IMAZ

Aresoko eskolako ikasleek Afrikaren eta Asiaren inguruko erakusketa zabaldu zuten atzo soinketa gelan. Bertara gurasoak gonbidatu zituzten, eurek egindako lanak eta bildumak erakustez gain, hauen inguruko argibideak emateko asmoz. Galdera bakoitzak ikasleen erantzun argia eta jantzia izan zuen atzokoan.

### Aresotik gertuago daude Afrika eta Asia

Azken aldian, eskolan helburu hori buruan zutela aritu omen dira lanean, hau da, bi kontinente ezagutu eta ezagutarazteko asmoz.

3. eta 4. mailako ikasleak Afrika-

ren inguruan aritu dira lanean. 5. eta 6. mailakoek Asia hartu zuten gaitzat. Erakusketan bi kontinente hauetako tresnak, jantziak, argaz-

kiak, musika tresnak eta abar ikus zitezkeen. Aresotik gertu sumatu ziren atzokoan Afrikako eta Asiako kultura ezberdinak.



Egipto-Aresoko papiroak eta ikasle txikiak amari bere lana azaltzen. A. IMAZ

## Barriola leitzarrak bihar jokatuko du

A. IMAZ

Lehen Mailako Lau t'erdiko Txapelketaren azken zatian, finalerdietako ligaxkan, Abel Barriolak eta Aimar Olaizolak jokatuko dute elkarren aurka Iruñeko Labrit pilotalekuan, bihar 17:15ean.

Ligaxkak lehen partidak irabazi ostean, bi pilotariak jadanik puntu bana dute. Bihar irabazten duena beraz, finalerako txartela ia ziurtaturik edukiko luke.

### Material aukeraketa

Leitzarra eta goizuetarra herenegun elkartu ziren Iruñeko Labriten bihar pilotak aukeratzeko. Barriolak 104,8 eta 105,3 gramotako pilotak aukeratu zituen. Bata Pupa etxeak egina eta bestea Zi-prirena. Olaizola II.ak 105,5 eta 105,7 gramokoak hautatu zituen, biak Pumparenak.

Barriolak pilota biziak aukeratu zituen. Aimar Olaizolak frontisean eta zoruan gutxi ibiltzen diren pi-

lotak hautatu zituen. Material aukeraketan argi geratu zen bi pilotariak bihar jokatuko dituzten asmoak. Bata luze eta botera jokatzen ahalginduko da, etsaiari airea kendu asmoz. Bestea tantoa ahalik eta azkarren amaitzen saiatuko da, piloteteo luzeetatik ihes eginez.

### Pilotarien esanak

Barriola «gustura» zegoen aukeraketarekin: «Pilota oso ezberdinak aukeratu ditugu. Nik hautatu ditudanak irteera handiagoa dute frontisetik eta lurretik. Ea Aimar estualdian jarri eta 22ra iristerik dudan».

Aimar Olaizolak eskuin sorbaldako lesioa «apurka-apurka hobetzen» ari zaiola aipatu zuen. Hautatutako materialaz berriaz honako esan zuen: «Mugitzen zail diren pilotak hartu ditut eta frontisetik motel ateratzen dira».

Dirua parean irtingo da, Olaizola II.aren aldeko joerarekin.

## Mujikaren atxiloketaren harira ez ohiko bilkura

**Amezketak** » Udalbatza gaur 20:00etan elkartuko da, Irati Mujika bien bitartean inkomunikazio egoeran aurkitzen da.

A. IMAZ

Amezketako Udalak ez ohiko bilkura egingo du gaur 20:00etan udaletxean. Bertan ondorengo mozioa mahairatuko da: «Herri-tar baten atxiloketa (Irati Mujika Larreta) eta inkomunikazio + torturaren salaketa».

Irati Mujika astelehenean atxilotu zuen Espainiako Polizia Nazionalak Iruñean, bigazterekin batera. Inkomunikaturik aurkitzen da Madril eta larunbatean igaroko da epailearen aurretik. Bere egoeraren inongo berririk gabe aurkitzen da sendia.

### Mozioan 3 puntu

Udalbatzak mahai gainean edukiko duen mozioa hiru puntuz osatua egongo da: «Lehenik inkomunikazioa eta tortura salatzen dira. Ondoren sendiari elkartzasuna adierazten zaio eta hirugarren puntuan, Udalak bihar 17:30ean egingo den manifestazioa antolatzen duela esaten da».

### Ezker abertzalearen deialdiak

Amezketako ezker abertzaleak ez ohiko bilkurara agertzeko deialdia egin du. Ondoren elkarretaraztea egingo baitute. Bihar berriz eskualdeko manifestazioa egingo dute Amezketan, 17:30ean hasita.

Tolosaldeko Gazte independentistek ikastetxeetan geldialdi-tara deitu dituzte gaurko. 10:30ean kalera irteteko deia egin die ikasleei. 11:30ean Tolosako Triangulotik manifestazioa egingo dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaalde@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Amasa.** Pirritx eta Porrotx paila-zoen *Eskerrik asko* ikuskizuna 17:30ean Amasako plazan, ondore txokolate jatea, 20:00etan XVII. Bakailo Lehiaketa frontoian eta 23:30ean Laiotzen dantzaldia.

### Kultur asteak

- **Alegia.** 1, 2, 3... *Inaxito* (3. parte) haur antzerkia, Kultur jardunaldiaren baitan, 17:30ean, Kultur Etxean.
- **Amezket.** Musika eskolaren aldeko festa: 17:30ean Musika Eskolako ikasleen emanaldia eta 20:30ean afari-merienda.
- **Baliarrain.** Josune Lazkanoren eskutik *Lehen sorospenen oinarriak* solasaldia Kultur Etxean 21:00etan.
- **Ibarra.** Tania Hermida zuzendaria *Que tan lejos!* izeneko filmaren proiektzioa Kultur Etxean 19:15ean, Kultur Trukean.
- **Ikaztegieta.** Jon Urrazak *Bob, nor da Bob?* antzezlan eskainiko du kiroldegian 21:30ean.

### Antzerkia

■ **Tolosa.** *El hombre de rojo* lana Leidor aretoan 22:00etan, Minbizia-aren aurkako elkartearen alde.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Boulder eskalada txapelketa Oargi elkartearen azaroaren 22an 15:00etan. Izena eman dai-teke infantil, juvenil eta senior mailan. Tolosaldeko eskalatzaile onena ere sarituko dute. Izen-ernatea, 688 698642, edo [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**NEREX**  
Lentzeria


Bodiak  
Pijamak  
Kamisoiak  
Kamisetak  
Batoiak  
Pikardiak  
Tangak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30



## Ipuin kontaketa berezia Kultur Trukean

### A Agurrak



**Urte askoan!**  
**Ana Torquemada Aristi**  
(Tolosa). Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat.

agurrak  
urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**IBARRA** ■ Benito Izagirre kultur etxea Jaima bat zirudien atzo arratsaldean. Izan ere, Saharako ipuin kontalariak ziren bertan Kultur Trukearen baitan, eta guztia ondo atondu zuten, Saharara gehiago hurbiltzeko. Saharako emakume bat eta gizon bat aritu ziren kontalari lanetan, bertako hizkuntzan. Alboan zituzten Tolosaldea Sahararekin elkartekoak itzulpen lanak egiteko. Aretoa haur eta gurasoez bete zen eta guztiak alfabetatzen eseri ziren. Adi-adi entzun zieten saharar ipuinei eta ederki igaro zuten arratsaldea. Bertan zegoen, halaber, Saharako mutil bat tea prestatzen. Bertaratuek probatu zuten eta kanpoan egiten zuen eguraldiarekin ederki sartu zitzairen guztiak ere... I. TERRADILLOS

**TOLOSA 2008**  
VIII. MUS TXAPELKETA AZKARRA  
FRONTON KAFETEGIAN  
ARRATSALDEKO 16:30 ean

**Azaroak 15**  
Larunbata

**SARIAK**

- 1. 1.500 € + Txapelak + Garaikurrak + Babaruna 1 kg.
- 2. 800 € + Garaikurrak + Babaruna 1/2 kg.
- 3. 400 €
- 4. 200 €
- 5. 100 €
- 6. 100 €
- 7. 100 €
- 8. 100 €

- Jokuak 4 erregetara, 6 hamarretako 3 ustelera.
- Bikote bakoitzaren ordainketa: 40 Euro Fronton Kafetegian
- Epaileren erabakia mugigaitza lizango da.

Finalistak 2009ko aurremundialetara gonbidatuta daude

TXALOK  
MURKUTZEN  
**Grönholm**  
METODOA

Tolosan sarrerak  
RAKUN salgai

K